

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2018ko zerga ordaintzeko borondatezko epea

Alkatearen aginduz, honako hau jakinarazten da:

2018ko otsailaren 1etik martxoaren 31ra arteko egun baliodunetan (biak barne) Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko 2014ko Zergari dagozkion ordainagiriak prest egongo direla borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek ordainketa ez badute banketxean helbideratuta, udal bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta duten zergadunek ez dute inolako izapiderik egin behar, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berebean helbideratuta badute. udalak izapidetuko du ordainketa.

Gomendatzen da zergadunek ordainketa banku erakundeetan helbideratzea.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen zergabilketako arautegi orokorraren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Lagran, 2018ko urtarrilaren 19a

Alkate-lehendakaria

JOSE MARIA MARTINEZ FERNANDEZ